# 07 A ZER PLAN ONA!

## A HIZTEGIA / VOCABULARIO

**1** Pertsona hauek aisialdiari buruz hitz egiten ari dira.

Completa los di  logos, eligiendo el verbo adecuado. **Osatu esaldiak, aditz egokia aukeratuz.**

| | | | |
|---|---|---|---|
| erretiratu | intonatzen | entseatu | parte hartu |
| kantatzen | **bete** | biltzen | izena emango |



—Otsailean 65 urte (1) **bete** ditut eta (2) ..................................... egin naiz. Denbora asko daukat orain, eta herriko abesbatzan (3) ..................................... nahi dut.

—Primeran! Datorren urtean, Tolosako Abesbatza Lehiaketan (4) ........................................... dugu, eta jendea beharko dugu.

—Asko (5) ............................................ beharko dut, orduan. Noiz izaten dira entseguak?

—Astearteetan (6) ........................ gara hemen.

—Eta zer egiten duzue?

—Lehenengo, ahotsak (7) ................................................ ditugu, eta, gero, mundu guztiko abestiak (8) ................................................ ditugu.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| igeri egin | gonbidatzen | zabiltza | zaindu | patinatzen |



—Kaixo, Miren.

—Aspaldiko! Zer moduz, Pedro?

—Kafea hartzera (9) ................................................ zaitut.

—Oso ondo. Biloba kiroldegian (10) .................................... ari da, eta libre nago. Eta zu zertan (11) .................................... hemen?

—Goizean, (12) .................................... dut, eta, orain, atseden hartzen ari naiz. Zuk ez duzu kirolik egiten?

—Ez dut astirik. Lau biloba (13) .................................... behar ditut.

**2** Joxek eta Amaliak datorren urtean 50 urte beteko dituzte ezkonduta. Urte osoan ospatzea pentsatu dute, eta, ekainean, seme-alaba eta bilobekin itsas bidaia egin nahi dute. Interneten, Itsas Haize konpainiak ondo pasatzeko zerbitzu eta ekintza asko eskaintzen dituela ikusi dute.

Relaciona los siguientes servicios y actividades con su traducci  n. **Lotu hitz bakoitza haren itzulpenarekin.**

| | |
|---|---|
| 1. **Teatro** ⟶ | a. **Antzerkia** |
| 2. Excursiones | b. Ordenagailu-gela |
| 3. Cine | c. Haur-tailerrak |
| 4. Guarder a | d. Kasinoa |
| 5. Sala de ordenadores | e. Txangoak |
| 6. Biblioteca | f. Kirolak |
| 7. Casino | g. Zinema |
| 8. Tiendas | h. Igerilekua |
| 9. Baile | i. Haurtzaindegia |
| 10. Deportes | j. Dantzaldia |
| 11. Espect culos | k. Ile-apaindegia |
| 12. Piscina | l. Dendak |
| 13. Peluquer a | m. Liburutegia |
| 14. Talleres infantiles | n. Ikuskizunak |



**3** Amaliak eta Joxek urte osorako plana egin dute, eta Andoni eta Miren seme-alabei erakutsi diete.

Escribe los nombres de los meses en euskera en los espacios del calendario. **Idatzi hilabeteen izenak euskaraz.**




**4** Maider, alaba zaharrena, ezin izan da gurasoen etxera joan, eta amak telefonoz kontatu dio plana.

Escribe en qu   mes van a realizar cada cosa. **Idatzi zein hilabetetan egingo duten gauza bakoitza.**



Adib.: **Urtarrilean**, Tenerifera joango gara.

1. ................................, Arnedilloko bainuetxera joango gara.
2. ................................, ez gara inora joango, etxea pintatu behar dugu eta.
3. ................................, kuadrillakoekin mendira joango gara.
4. ................................, Nikaraguara joango gara, eskola bat eraikitzen laguntzera.
5. ................................, zuekin itsas bidaia egingo dugu Mediterraneoan.
6. ................................, etxe bat alokatuko dugu Azkainen, eta biloba guztiekin joango gara, zuek bakean uzteko.
7. ................................, Australiara joango gara. Etxea trukatuko dugu hango familia batekin: gu hara joango gara eta haiek hona etorriko dira.
8. ................................, haurrak eskolan hasiko dira, eta jangela martxan jarri arte, gure etxean bazkalduko dute bilobek; arratsaldeetan, aitak eta biok zainduko ditugu zuek lanetik irten arte.
9. ................................, Nafarroara joango gara piperrak eta tomatea erostera; gero, pototan sartuko ditugu.
10. ................................, Iratiko basora joango gara perretxiko bila. Zuek ere gonbidatuta zaudete.
11. ................................, Parisera bidaiatuko dugu. Hiri erromantikoa da eta oso egokia Gabonetako erosketak egiteko.

## B NOIZTIK NOIZ ARTE? / ¿DESDE CU NDO HASTA CU NDO?

- El caso **noiztik** *(desde cu ndo)* expresa el punto de partida en el tiempo.
- **Noiz arte** *(hasta cu ndo)* expresa el t rmino en el tiempo.

### NOIZTIK

**IZEN ARRUNTAK** - NOMBRES COMUNES

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Singular | vocal | **-tik** | ekainaren zortzi**tik**<br>datorren hilabete**tik** | *desde el ocho de junio*<br>*desde el mes que viene* |
| | cons. | **-etik** | ostiral**etik** | *desde el viernes* |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Plural | **-etatik** | oporr**etatik**<br>azken aste**etatik***<br>hamaik**etatik**** | *desde las vacaciones*<br>*desde las ltimas semanas*<br>*desde las once* |

*e + e > ee
**a + e > e

**ADBERBIOAK** - ADVERBIOS

| | | | |
|---|---|---|---|
| Adverbios | **-tik** | bihar**tik**<br>etzi**tik** | *desde ma ana*<br>*desde pasado ma ana* |

### NOIZ ARTE

- A la pregunta **noiz arte?** se puede contestar de dos maneras. En los dos casos aparece la part cula **arte**, pero la palabra que le precede puede llevar o no el sufijo **-(e)ra**. Aunque existen excepciones, suele seguir la siguiente norma:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Nombre | singular | **-(e)ra arte** | ostiral**era arte**<br>igande**ra arte** | *hasta el viernes*<br>*hasta el domingo* |
| | plural | **-Ø arte** | Gabonak **arte** | *hasta las navidades* |
| Adverbio | **-Ø arte** | | bihar **arte** | *hasta ma ana* |
| Verbo | **-Ø arte** | | bukatu **arte** | *hasta acabar* |

**5** Aimar, biloba txikiena, amonarekin geratu da gurasoak lanera joan diren bitartean. Aimarrek batetik bestera noiztik noiz arte ibiliko diren galdetu dio amonari.

Contesta a las preguntas que le ha hecho Aimar a Amalia. **Erantzun Aimarrek Amaliari egin dizkion galderak.**



**Adib.:** Noiztik noiz arte egongo zarete Tenerifen? (urtarrilak 18/urtarrilak 30)
**Tenerifen, urtarrilaren hemezortzitik urtarrilaren hogeita hamarrera arte** egongo gara.

1. Noiztik noiz arte egongo zarete Arnedillon? (lehenengo astelehena/hurrengo igandea)

......................................................................................................................

2. Noiztik noiz arte arituko zarete etxea pintatzen? (martxoaren hasiera/pintatzen bukatu)

......................................................................................................................

2. Spara joan gaitezke?

Ez, ................................................................................................................................................................ .

3. Gauean itsasontzian ibil gaitezke?

Ez, ................................................................................................................................................................ .

4. Zuekin erosketak egin ditzakegu?

Ez, ................................................................................................................................................................ .

5. Aimarrek sabel-dantza ikastaroa egin dezake?

Ez, ................................................................................................................................................................ .

6. Gosaltzeko kafea har dezakegu?

Ez, ................................................................................................................................................................ .

7. Igerilekuan txanorik gabe baina gaitezke?

Ez, ................................................................................................................................................................ .

## M BERRIKUSI / REPASA

**25** Bidaia bukatu da, eta familiako guztiek primeran pasatu dute. Aitona oso pozik dago, eta azken afarian, zutik jarrita, denei hitz egin die.

Completa el texto, eligiendo la opci n correcta. **Osatu testua, aukera egokia erabiliz.**



Gure urrezko ezteiak zuekin ospatu (1) ***a***, ez baitakigu zenbat (2) __ biziko garen. Bidaia hau (3) __ gonbidatu (4) __ aurten amonak eta nik, eta, datorren urtean, dirua (5) ___, beste bat antolatuko dugu.

Oso pozik gaude, ezin diogu bizitzari gehiago eskatu. Gure seme-alabek gu asko maite (6) ___, eta lau (7) __ osasuntsu eta alai dauzkagu; amonak eta biok bizitza osoa daramagu (8) ___, eta asko maite dugu (9) ___. Topa!

Eta bidaia zoragarri hau bukatzeko, sorpresa bat daukat zuretzat, Amalia: Orkestran (10) __ gure kantua jotzeko eskatu diot. Nirekin dantza egingo duzu, maitea?

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1.<br>a. ***nahi izan ditugu***<br>b. nahi izan dugu<br>c. nahi izango dugu | 2.<br>a. urteak<br>b. urtea<br>c. urte | 3.<br>a. egiteko<br>b. egitera<br>c. egitea | 4.<br>a. zaituztegu<br>b. gaituzue<br>c. zaitugu | 5.<br>a. aurreztuko badugu<br>b. aurrezten badugu<br>c. aurrezten bagara |
| 6.<br>a. gaitu<br>b. gaituzte<br>c. ditugu | 7.<br>a. biloba<br>b. bilobak<br>c. bilobek | 8.<br>a. elkar<br>b. elkarrekin<br>c. elkarren | 9.<br>a. elkar<br>b. elkarrekin<br>c. elkarren | 10.<br>a. jotzen duen biolin-jotzaileari<br>b. jotzen duten biolin jotzaileari<br>c. jotzen duen biolin-jotzaileei |